2006-IX-15
Número **193.** zenbakia

ELA

# astekaria

## EDITORIALA

### Dena legala

Eskandalu itzela sortu da AEBtako espioitza zerbitzuek (CIA famatuak) Europako hainbat lurraldetan ezkutuko espetxeak izan dituztela eta, oraindik ere, badituztela jakin denean. Bush presidenteak berak onartu du bolobolo zebilen berria eta, justifikatu ere, justifikatu du, edozein gehiegikeria zuritzeko balio duen "terrorismoaren aurkako guduaren" izenean.

Eskandaluari, baina, fariseismo kutsua dario, inorenean arbuiatzen dena, edo antzeko zerbait, norberenean egin, onartu edo isiltzen denean, Espainian gertatzen den bezala.

Ezkutuko espetxeak, Guantanamoko lurraldez kanpoko kontzentrazio eremua bezala, legerik gabeko guneak dira, indartsuenak, berak ezarritako legeez ere askatuta, indar hutsaren kode gordina, tortura barne, ezartzen duen guneak.

Espainiak ere izan ditu ezkutuko espetxeak; La Cumbre gogoratu besterik ez dago. Baina, azkenaldian, gerra zikinaren ordez lege zikina erabiltzea nahiago izan du estatuak: legez kanpo torturatu baino, hobe tortura babesten duten legeak ezartzea; epaileen eskuartzerik gabeko espetxeratzeak baino, hobe epaileek, epairik gabe, hiruzpalau urtetan jendea espetxean edukitzea ahalbidetzen duten legeak; presoak, inolako kondenarik gabe, CIAk edo armadak nahi duen arte atxilo eduki baino, hobe legeak, zigorrak eta epaitegien irizpideak aldatzen joatea, estatuak presook noiz arte kartzelan eduki nahi duenaren arabera. Hau zuzenbide estatu da, gero!

Iñaki de Juanaren kasua, Parot dotrina, inoiz argitzen ez diren tortura salaketak, gaixorik dauden presoak, edota zigorraren bi eren edo hiru laurden bete dituztenak espetxean edukitzea... Hemen, "dena legala", iruzurgileek esan ohi duten bezala, estatuaren jokabidea legeetara egokitu beharrean, legeak unean uneko jokabidera egokitu behar badira ere.




## 1993 hona soldatek 6 puntutik gora galdu dute errentaren banaketan, ELAko azterketa bulegoaren arabera

# GERO ETA BIDEGABEAGO

**Ekonomiaren hazkundearen etekinen banaketa ez da bidezkoa, ez solidarioa. Azken finean, aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da". Hori da irailaren 13an ELAk Bilbon EAEko egoera ekonomikoari buruz aurkeztutako txostenaren ondorio nagusia. Hazkunde ekonomikoaren datu onaren atzean azken hamabi urteetan langileen errentak pisua galdu izana ezkutatzen da. Azken hamar urteetan ekonomia asko hazi da, baina hori ez da soldatapeko langileen bizi mailan isladatu. Hala nabarmendu zuen ELAko ikerketa batzordeko Mikel Novalek aurkezpenean. "EAEko ekonomia asko hazi da azken urteotan. Alabaina, langile-klasearen ikuspuntutik garrantzia du aberastasuna nola banatzen den, eta hau gure agintariei ez zaie axola. 1993tik ekonomia %146 handitu bada, soldatapekoen errenta %119 handitu da. Hamabi urte hauetan langileen errentek %6,1 galdu dute aberastasunean".**

Galera urtez urte gero eta nabarmenagoa dela azpimarratu zuen Novalek. "Iaz, lan errenten pisua BPGaren %48,6koa izan zen, 2002koa %49,2koa zen bitartean". Galera hori ia urtero ematen dela nabarmendu du ELAk. 1993an lan errentei BPGan zegokien zatia %54,7koa zen, eta 2005era bitartean, galdu eta galdu besterik ez du egin: «Lan errenten pisua hamabi urteotako tarte horretan soilik hiru urtetan baino ez da hazi, 1998an, 2001ean eta 2002an. Gainontzeko bederatzietan gutxitu egin da".

→




*Jose Elorrieta, Mikel Noval eta German Kortabarria, iragan irailaren 13an egindako aurkezpenean.*

**Desde 1993 la participación de las rentas de trabajo en la riqueza ha perdido más de 6 puntos. El crecimiento se está repartiendo de una forma injusta e insolidaria**

## Reckitt Benckiser ha anunciado su intención de cerrar la fábrica de Güeñes

# EN BUSCA DE MAYORES BENEFICIOS

**La multinacional Reckitt Benckiser ha anunciado su intención de cerrar la fábrica de Güeñes, a pesar de ser la segunda planta más productiva del grupo a nivel europeo. La decisión fue anunciada antes a la prensa que a los trabajadores y trabajadoras lo que pone de manifiesto la falta de voluntad negociadora de la dirección de la multinacional.**

Estamos ante la segunda planta más productiva a nivel europeo que había realizado importantes inversiones en los últimos años. Habría que añadir que los beneficios han sido constantes y crecientes. En opinión de Hainbat, la marcha de la multinacional sólo tiene un objetivo: buscar más beneficios en otro lugar que le ofrezca mejores condiciones. "Para ello no duda en despedir a toda la plantilla. ¿Y las Administraciones? Les facilitan ayudas para que se instalen, les subvencionan todo tipo actuaciones mientras están (incluyendo los despidos de los trabajadores) y cuando deciden irse apelan a la libertad de mercado".

Decir que la solución al empleo que se destruye es "crear más empleo" solo sirve, en opinión de ELA, para intentar salir airoso de la coyuntura. A nadie se le oculta que el empleo creado, por ejemplo es Ezkerraldea, es fundamentalmente precario.

**Reckitt Benckiser enpresaren erabakiaren atzean asmo bakarra dago: ahalik eta irabazi gehien izatea**

Langileek galdutako kopuruaren zenbatekoa eurotan neurtzeak arazoaren larritasunaz jabetzeko balio duela aipatu zuen Novalek. "2005. urtean laneko errentek 1993. urtean zuten pisu bera izan balute, langileei 3.510 milioi euro gehiago egokituko litzaieke; soldatapeko langile bakoitzak batez beste 4.400 euro galdu ditu azken urteotan aberastasunen banaketa bidegabea medio".

### "Ondo... Zeinentzat?"

EAEko agintariek behin eta berriz aipatzen dute ekonomia inoizko sasoi onenean dagoela, eta gizartearen ongizate maila goraipatzen dute uneoro. ELAren idazkari nagusi Jose Elorrietak txostenaren aurkezpenean azpimarratu zuenez, analisi horren atzean errealitatearen irudi propagandistiko, osatugabea eta interesatua dago.

"Ekonomikoaren azterketa baikorra egiten dutenei subkontzienteak traizio egiten die: kontentu daude enpresaburuei ondo doakielako, besterik ez. Azken urteetan behin-behinekotasuna nabarmen handitu da, eta langile kopuru handi batek soldata apalak ditu. Enplegua sortu eta hazkunde ekonomikoa egon eta soldatapeko errentek pisua galtzea anomalia bat da".




***Grafiko honek argi erakusten du nola joan den langileok aberastasunean dugun parte hartzea murrizten***




***Ekonomia askoz gehiago hazi da lan errentak baino, grafikoan ikus daitekeen bezala***

## OSAKIDETZA

## EUSKALDUNIZACIÓN: TARDE Y MAL

**Delegados y delegadas de ELA-Osakidetza se reunieron el pasado jueves 14 de septiembre para debatir las iniciativas de la administración para euskaldunización de la sanidad vasca. Según ELA, estas iniciativas "pretenden suplir el verdadero abordaje de la euskaldunización del personal de Osakidetza".**

**ELA valoró que el proceso de euskaldunización en Osakidetza no vale ni para satisfacer la demanda de la población, ni para cubrir las necesidades del personal. El plan ha llegado tarde y se han perdido años en los que se debía haber hecho una planificación escalonada.**

**Ahora, señalan, la presión de la sociedad hace que Osakidetza se vea necesitada de ofrecer resultados. No se han dedicado recursos suficientes. Esta escasez de recursos lleva a limitar los recursos al personal fijo de las áreas definidas como prioritarias.**

**Como ejemplo, un hospital muy referencial que cuenta con una plantilla de 4.500 trabajadores tiene concedidas para el 2006 22 liberaciones. El plan es rígido, sólo para personal fijo, no se ha facilitado la información suficiente al personal, lo que ha generado un amplio malestar, y ha hecho surgir una sensación muy negativa, lo cual en poco ayuda a la normalización no traumática del euskera**

Egunean Al día

# IA LAU HILABETEKO GREBA ANDOAINGO EGOITZAN

Andoaingo San Juan Bataiatzaile Egoitzeko langileek egiten ari diren grebak ia lau hilabete bete ditu. Lanpostuen Perfilak, zerbitzuen antolaketa, langileen funtzioak eta euskararen erabilera izan dira, besteak beste, grebara jotzeko arrazoiak. Hauekin batera, orduko prezioaren birmoldaketa, kontratako langileek jasaten ari diren diskriminazioarekin buka ahal izateko eta erizain laguntzailei asteko 20 ordutan lanaldia igotzea daude.

Langileen aldarrikapenen artean nagusiki diskriminazioarekin bukatzea da lehenetarikoa. Funtzio berberak betetzen dituzten udalaren menpeko langileak 625 euro gehiago kobratzen dituzte hilero, lan berdina eta leku berdinean eginaz. Honek enpresan eskala bikoitza izatera eramaten du eta ondorioz diskriminazioa sustatzera.

Are eta gehiago, kontutan izan behar da, orain arte enpresan adosturik zeuden lan hobekuntzak, bertan behera uztea erabaki duela enpresak Adegiren aholkua jarraituz. Gipuzkoako Hirugarren Adineko Egoitzen Hitzarmena halamoduz ixteak honako ondorioak ekarri ditu baita Andoaingo zaharren Egoitzan.

Greba ematen ari den honetan, Gobernu Batzordearen kezka nagusia zera izan da: negoziazio bidea bultzatu ordez, itxurak eta irudia mantentzea sendikoen artean. Gutxieneko zerbitzuak horretara eraman dira eta ez, beharrezkoa den bezala, adineko pertsonen duinezko zainketara. Bide horretan, araudiaren aurkako aginduak ere eman dira, egoitzaren gezurrezko itxura normaldua emateko.

Guzti honen aurrean langileek erabaki irmoa dute greban jarraitzeko ahalik eta egoera hau konpondu arte. Horretarako Andoaingo Gobernu Batzordeari negoziazio mahaia eratzea exijitzen diogu bertan diskriminazio egoerarekin buka dadin.

*La Residencia de Andoain lleva más de un año queriendo negociar, pero el ayuntamiento ha cerrado las puertas.*

*Tras cuatro meses, sigue la huelga por unas condiciones dignas y contra la discriminación*

Elkarrizketak Entrevista **La Red por el Tren Social ha comenzado una campaña informativa**

# POR UN TREN SOCIAL



**La Red por el Tren Social presentó el 13 de setiembre en Bilbo una campaña informativa para impulsar el tren social y reafirmar la necesidad de parar el Tren de Alta Velocidad (TAV). Los responsables de los grupos sindicales, sociales y políticos que componen la plataforma extenderán durante varias semanas la campaña de información en las capitales y en muchos pueblos perjudicados por el proyecto. Janire Dominguez, responsable de medioambiente de ELA nos habla de esta campaña.**

**-¿Qué os ha llevado a poner en marcha esta campaña?**

-Pretendemos que la ciudadanía conozca la situación real del TAV, y en consecuencia se implique en la movilización. El Gobierno Vasco nunca ha querido entrar a debatir el modelo de transporte que está promoviendo. Por todo esto, creemos necesario informar a la ciudadanía e impulsar este debate.

**-En la presentación de la campaña calificasteis la actitud del Gobierno Vasco como intransigente.**

-El Gobierno Vasco insiste en que está dispuesto a dialogar, pero siempre partiendo de la realización del TAV. La verdadera participación es mucho más que una reunión entre políticos, funcionarios y entidades no institucionales en las que las instituciones dictan lo que van a hacer. En la cuestión del TAV el Gobierno Vasco ha obviado y sigue obviando lo que la sociedad aporta, argumenta y demanda.

**-¿Qué alternativas propone la plataforma?**

-Nuestra apuesta es a favor de un transporte en ferrocarril, pero un transporte pensado para los movimientos principalmente de personas y mercancías dentro de Euskal Herria y que permita una comunicación ágil con el resto de Europa. Apostamos por a mejora sustancial y el mantenimiento público de la red ferroviaria de carácter social. Es evidente que el proyecto TAV no cumple estos objetivos. Al fin y al cabo, la apuesta en contra del TAV es una apuesta a favor de una red ferroviaria social.

**-Y después de la campaña informativa, ¿qué?**

- La Red por un Tren Social sigue trabajando. Hemos solicitado reuniones con muchas entidades, instituciones y organizaciones, como con el PSE, la Comisión de Transportes del Parlamento Vasco y el Ministerio de Fomento en Madrid. Es necesario insistir en la existencia de otros puntos de vista y otras alternativas. Aún estamos a buena hora para reorientar la política de transportes en general y del ferrocarril en concreto, reorientación que es necesaria en términos ambientales, sociales y económicos.

*"Gizartean eztabaida bultzatzea da kanpainaren helburua"*

Iritzia **Opinión**

# EUSKALDUNIZAR EL MUNDO DEL TRABAJO

Las empresas constituyen uno de los ámbitos en los que la presencia y uso del euskara es menor. En los últimos años se han dado pasos muy importantes en la euskaldunización del sistema educativo, pero cuando el chico o chica abandona la escuela y se integra en el mundo del trabajo, se encuentra la mayoría de las veces en un universo erdaldun, incluso aunque muchos de sus integrantes sean euskaldunes. Y es que para un entorno de trabajo euskaldun no es suficiente con que sus miembros sean euskaldunes; la normalización exige condiciones adecuadas para que las relaciones, internas y externas, se desarrollen en euskara; en definitiva, que el euskara sea idioma de trabajo, relación y servicio.

Hoy son todavía contadas las empresas que han previsto la normalización efectiva del euskara, aunque sean bastantes las que han previsto cláusulas (la mayoría de las veces poco eficaces) relacionadas con el euskara. Un dato: en la CAPV no pasan de 120 las empresas que han conseguido la subvención de la Viceconsejería de Política Lingüística (VPL) para los planes de normalización.

## Responsabilidad compartida

Es una materia que requiere compromisos múltiples. En primer lugar, de las administraciones que en años han primado otros ámbitos, pero no han atendido el del mundo del trabajo. Luego está la patronal, que, salvo excepciones, ha pasado de las iniciativas en pro del euskara. Y es que la mayoría de los empresarios no perciben que dar un producto o un servicio en euskara sea un valor añadido, un plus de calidad.

Los sindicatos tenemos, también, nuestra cuota de responsabilidad. Por lo que, como ELA, nos afecta, pensamos que la euskaldunización debía empezar por casa y, en 2004, aprobamos la normativa interna sobre el uso del euskara y el plan de normalización, del que estamos ya en la tercera edición. A medio plazo, nos proponemos que el euskara sea idioma de trabajo y servicio, también en la relación con cuadros y afiliados.

De cara a las empresas esta materia ha sido objeto de trabajo conjunto con LAB. Desarrollamos la campaña "Lan munduaren ordua da" (es hora del mundo del trabajo), e incorporamos esta materia a los acuerdos confederales de negociación colectiva de 2003 y 2004.

Trabajamos en la sensibilización de delegados/as y afiliados/as, que en muchos casos no sienten este problema o queda muy en segundo plano. Hemos procurado impulsar planes de normalización en las empresas en las que contamos con representación, aunque con resultados muy modestos. Colaboramos con Kontseilua, como firmantes del "Acuerdo Sociopolítico".

## Un paso importante

La VPL acaba de firmar con Confebask y sus territoriales un acuerdo para impulsar el euskara en las empresas. Un acuerdo similar con los sindicatos se concluirá, probablemente, en breve. Valoramos positivamente que la Administración se implique, algo que pedíamos hace tiempo, así como la firma de la patronal, cuya eficacia dependerá del compromiso de las gerencias en los planes de empresa.

En cualquier caso, pensamos que estos acuerdos deben integrarse en un plan más integral, que contemple el euskara como una materia trasversal, y asuma medidas ambiciosas. Un paso necesario es que la propia Administración empiece a garantizar el derecho de la ciudadanía a que el servicio público le sea prestado en euskara.

Por lo que afecta al sector privado, debe verse en la prestación de productos o servicios en euskara una ventaja en clave competitiva.

Porotra parte, la implicación de la Administración no debe reducirse a la de la VPL. Trabajo e Industria tienen, también, mucho que decir, por ejemplo, teniendo en cuenta el euskara en la política de ayudas y subvenciones a las empresas.

Es necesario, por otra parte, que se garanticen los derechos lingüísticos que recoge el Estatuto de los consumidores y usuarios. No es ocioso recordar que el Acuerdo quedará en papel mojado si no se habilitan los medios necesarios para llevarlo a la práctica.

## Consenso político y social

Por último, la normalización del euskara requiere un amplio consenso político y social. En este orden de cosas, se echa en falta la colaboración entre el Gobierno vasco, representado por la VPL y el conjunto de agentes que trabajan por el euskara, encuadrados actualmente en Kontseilua. Hay que romper la actual incomunicación y establecer una dinámica de colaboración, desde la legitimidad y la responsabilidad de cada cual. Porque en la euskaldunización del mundo del trabajo, como en otros ámbitos, las estrategia y planes de los distintos agentes deben ir en un único sentido y generar dinámicas complementarias, y no contradictorias o paralelas.

ELA, por su parte, ratifica su compromiso con la normalización del euskara en el mundo del trabajo y asume la responsabilidad singular que, en tanto que sindicato mayoritario, le compete. El compromiso es grande, la tarea ambiciosa. Pongámonos manos a la obra.

**LEIRE TXAKARTEGI, Secretaria de Organización y responsable de Euskera**

*"Funtsezkoa da lan munduaren euskalduntzean eragile guztion estrategiak eta planak norabide bakarrean zuzentzea, dinamika osagarriak eta ez kontrajarriak edo paraleloak sortuz"*



### Itziar Gabikagogeaskoa, genero arduraduna, Bizkaiko kontserbagileen grebaz

# Diskriminazioaren ispilu

**Bizkaiko kontserberetako langileek bi hilabete bete dituzte greban. Denboraldi honetan dozena erdi enpresetan akordioak sinatu dira, baina beste hainbeste geratzen da egiteko. Jakina da emakumeak nagusi direla sektore honetan eta emakumeak pairatzen duten diskrimazioaren ispilu bihurtu da.**

**-Nola gauzatzen da diskriminazioa?**

-Lehenik esan beharra dago langileen %90 emakumeak direla. Sektore gogorra da, lan fisiko nekagarria egiten dute beharginek eta lan baldintzak zeharo kaskarrak dira. 720 euroko soldata garbia dute, kategoria izugarriak daude enpresetan eta bertan lan egiten duten gizonek soldata eta kategoria altuagoak dituzte. Emakumeon soldatak osagarritzat dituzte ugazabek eta etxerako laguntza soila balitz bezala ordaintzen diete.

Baina injustiziaren aurpegi iluna haratago doa. Bakan batzuk baino ez dira mailaz igotzea lortzen duten emakumeak eta lana dagoenean soilik behar egiten dute, hortaz, ez dute bizitza independente bat egiteko aukerarik.

**-Egoera honen aurrean zeintzu dira aldarrikapenak?**

-Emakume izateagatik pairatzen duten bereizkeria egunerokotasunaren parte da kontserberetan eta egoerari buelta ematea ezinbestekoa bihurtu da azken bi hilabeteotan. Duintasuna lanaren parte dela argi du kontserberetako langileriak eta, besteak beste soldata duina, 25 lan orduko murrizketa eta lizentzia eta kategoriak berraztertzea eskatzen dute.

**-Uztailaren 17an greba hasi zenetik dozena erdi enpresetan akordioak eman dira. Nola dago egoera?**

-Dagoeneko 250 langileri eragin mugatuko akordioa ezarri diete, 300ek hau hobetzen duten akordioak lortu dituzte eta beste 450 langilek greba mugagabean jarraitzen dute.

Grebara jo zutenetik piketeak egon dira egunero, polizia jazarpenak, kargak, jazarpen judizialak eta greba eskubidea zapuztuta. Enpresa buruek langileei egin dizkieten mehatxuak ez dira gutxi izan eta are larriagoa dena, zenbaitek erasoak ere jasan behar izan dituzte (non dago Lan Ikuskaritza?). Halere, ez dute etsi. Emakume hauek prekarietatea salatzeko eta egoera errotik aldatzeko nahia dutela erakutsi dute.

***Las trabajadoras de conservas de Bizkaia llevan más de dos meses en huelga por unas condiciones dignas***

## Labur Breves




### ● Huelga en los Eroski de Tudela

La casi totalidad de los trabajadoras de los Eroski Center y Eroski City de Tudela han secundado la huelga convocada por ELA desde el 12 al 18 de setiembre para exigir la no aplicación del convenio estatal. Este convenio supone un retroceso en sus condiciones laborales y salariales.

La aplicación del acuerdo estatal supondría incrementar la jornada laboral anual en 14 horas, además de la pérdida de importantes derechos sociales. A ello habría que añadir que la subida salarial prevista en este marco es del 0,2% por encima del IPC para los dos próximos años.

### ● Nuevo accidente en ACB de Sestao

ELA denunció el uso abusivo de subcontratas en la Acería Compacta de Bizkaia, tras el accidente laboral ocurrido el 14 de setiembre en las instalaciones de la empresa, con el resultado de cuatro trabajadores heridos leves. La federación del metal de ELA recordó que no es la primera vez que se producen explosiones de estas características, como consecuencia de la presencia anormal de agua, un hecho conocido desde hace tiempo por la dirección de la empresa.

ELA considera que debe existir una revisión de los procedimientos que tiene establecidos la empresa para el control de la seguridad , con el fin de extremar la misma, máxime cuando anteriormente ya se han producido accidentes similares en esta planta. El anuncio, ahora después del accidente, de que se van a realizar inversiones en el área en que se ha producido, confirma la desidia con la que se ha tratado antes este problema.

### ● Actuacion antisindical de Fagor

La federación del metal de ELA ha remitido una carta a la dirección de Fagor denunciado la actuación antisindical del grupo cooperativo en una empresa de localidad turca de Gebze, que cuenta con una plantilla de 70 empleados. Según información remitida por el sindicato del metal de Turquia, Celik-is, la dirección de Fagor despidió el pasado 8 de setiembre a once trabajadores empresa, al tener conocimiento de que la mitad de los empleados se habían afiliado a este sindicato. Desde ese momento, la plantilla viene realizando movilizaciones para exigir la readmisión de sus compañeros despedidos.

### ● Firma el convenio de la Administración del Estado

ELA ha firmado el convenio de la Administración del Estado. El texto suscrito en Madrid contempla, entre otros aspectos, recoge unos incrementos salariales entre un 25% y un 32%, así como una reducción de jornada de 1.711 a 1.647 durante sus cuatro años vigencia. El convenio mejora, por tanto, el acuerdo suscrito en 1988 por los sindicatos UGT y CCOO.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**